# Xedapen Orokorrak

## ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

**673**

4/2011 DEKRETUA, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa.

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen helburu nagusia, Zioen Azalpenean dioen bezala, sistema sendo bat egituratzea da, krisi-egoeretan sendotasuna bermatzeko, azken urteotan ikusi den premien bilakaerara ondo egokitutako sistema bat. Aurreko ereduaren esparruan pobrezia-tasei eusteko eta fenomenoaren modurik muturrekoenak eraginkortasunez prebenitzeko gai izan zen balantze positiboa onartu arren, ezinbestekotzat hartzen du politika publikoen ahaleginak berrorientatzea, bilakaera horren ezaugarri kualitatiboak ezarri dituzten hainbat joera kontuan izanik, bereziki pobreziaren feminizazioa –guraso bakarreko egoerekin zuzenean lotua– eta, beharbada garrantzi handiagoarekin haren egitura-profila dela medio, soldata-maila baxuei lotutako pobrezia.

Helburu hori lortzeko eta ekintza publikoa eremu horretan biztanleen benetako premietara egokitzeko, testuak indarrean jartzen du Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema, eta bi funtsezko osagai esleitzen dizkio: prestazio ekonomikoak eta gizarteratzera eta laneratzera bideratutako tresnak. Lehenengoen artean ere, argi eta garbi bereizitako bi kategoria ezartzen ditu: eskubideko diru-prestazioak -diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria- eta subentzio-erako diru-laguntzak.

Ildo horretatik, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak prestazio ekonomiko osagarrien sistema egonkor bat eratu nahi du, hain zuzen ere, diru-sarrerak bermatzeko errenten onuradunek etxebizitzaren egiturazko gastuekin zerikusia duten gastuei aurre egiteko modua izan dezaten. Hori hala eginda, gizarte-larrialdietarako laguntzak aldizkakoak ez diren gastuak ordaintzeko erabiltzeko modua egongo litzateke, eta egiturazkoa den arazo bati, behin-behingoz behintzat, erantzun egonkorra emango litzaioke, gaiari modu integralagoan heltzen zaion arte. Hori etxebizitzaren arloko politika publiko baten bidez egin beharko litzateke, lotura zuzena baitu horrek babes sozialaren helburuekin.

Helburu horrek bere isla izan du, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarrila-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

**673**

DECRETO 4/2011, de 18 de enero, de las Ayudas de Emergencia Social.

La Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social tiene por principal objetivo, como indica expresamente en su Exposición de Motivos, estructurar un sistema sólido, susceptible de garantizar su fortaleza en las situaciones de crisis y bien adaptado a la evolución de las necesidades observada en los últimos años. Aun reconociendo el balance positivo que, en el marco del modelo anterior, fue capaz de contener las tasas de pobreza y de prevenir con eficacia las formas más extremas del fenómeno, considera indispensable reorientar los esfuerzos de las políticas públicas, teniendo presentes ciertas tendencias que han venido determinando las características cualitativas de esta evolución, en particular, la feminización de la pobreza –en clara relación con las situaciones de monoparentalidad– y, quizá con mayor calado debido a su perfil estructural, la pobreza asociada a bajos niveles salariales.

Con vistas a alcanzar este objetivo y de adaptar la acción pública en este campo a las necesidades reales de la población, el texto otorga carta de naturaleza al Sistema Vasco de Garantía de Ingresos e Inclusión Social y le atribuye dos componentes esenciales: las prestaciones económicas y los instrumentos orientados a la inclusión social y laboral. Entre las primeras, a su vez, distingue dos categorías claramente diferenciadas: las prestaciones económicas de derecho –Renta de Garantía de Ingresos y Prestación Complementaria de Vivienda– y las ayudas económicas subvencionales –Ayudas de Emergencia Social–.

En este sentido, la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social pretende articular un sistema estable de prestaciones económicas complementarias que permita afrontar los gastos estructurales relacionados con la vivienda a las personas beneficiarias de rentas de garantía de ingresos, lo que, a su vez, hará posible una reorientación de las ayudas de emergencia social hacia la cobertura de gastos no periódicos, aportando así una respuesta estable, aunque transitoria, a un problema de naturaleza estructural, hasta que puedan ser susceptibles de un abordaje más integral desde una política pública de vivienda, estrechamente vinculada a objetivos de protección social.

Este objetivo ha tenido un especial reflejo con la aprobación del Decreto 2/2010, de 12 de enero, de

ren 12ko 2/210 Dekretua onartu delako. Aipatutako prestazioaren helburua premia handiena dutenek –hau da, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak direnek– etxebizitza lor dezaten laguntzea da. Beraz, orain arte gizarte-larrialdietarako laguntzen bidez estaltzen ziren premietako batzuk aurrerantzean prestazio honekin bideratuko dira, baina alde nabarmen bat egongo da, hemendik aurrera laguntza hori jasotzeko eskubidea izango baita. Horrekin batera, alde onetako bat da testuinguru egokia sortuko dela gizarte-larrialdietarako laguntzak aldizkakoak ez diren laguntza bihurtzeko.

Era berean, azken urte hauetan Europa osoan bizi izan dugun krisialdi sakona gorabehera, ez da, inola ere, baztertu, gizarteratzeko modurik onena enplegua dela pentsatuz, lan-merkatuan sartzea –nahiz eta soldata apaleko lanpostua izan– erakargarri bihurtuko duen eredu bat ezartzea, hori baita, bestalde, Enpleguaren Estrategia Europarrak gizartearen kohesioa eta laneratzea lortzeko jarraibideetan eskatzen duena.

I. kapituluak xedapen orokorrak biltzen ditu, eta prestazioa definitzen duten elementuak, prestazioaren xedea, definizioa, izaera, prestazio horren xede diren estalduraren gastu espezifikoak, ezaugarriak, prestazioaren xede diren pertsonak, horien betebeharrak eta etxebizitza berean bizi diren, baina bizikidetza-unitate bera osatzen ez dutenek aldi berean beste diru-laguntza batzuk jasotzeko aukera, ezartzen ditu. Horri dagokionez, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearekin bat etorriz, ezarri da gehienez ere bi bizikidetza-unitatek eska ditzaketela Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak, gizarte-larrialdietarako laguntzak barne, eta lehentasuna emango zaie sistemaren zuzenbideko prestazioak (DBE eta EPO, esaterako) jasotzeari.

II. kapituluak diru-laguntza horren ekonomia-araubidea definitzen du, eta bereziki kontuan hartzen du baliabide eta ondare konputagarriak, laguntzen gehieneko zenbatekoak (urtero zehaztuko dira agindu bidez) eta laguntza horiek emateko mugak zehaztea. Laguntzaren egiazko zenbatekoari dagokionez, Dekretuaren testuak biltzen du Udal eskudun bakoitzak honako betebehar hau duela: urteko aginduaren arabera, kontzeptu bakoitzarengatik eman daitekeen gehieneko zenbatekoa eskatzaile guztien eskaerari modu berean erantzuteko Udalaren ustez nahikoa den ehuneko negatiboan murriztea, betiere dauden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.

Nolanahi ere, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak agintzen duena kontuan hartuta, gizarte-larrialdietarako laguntzen emakida eta zenbatekoak baldintzatzen dituzten mugak ezartzen dira. Zehazkiago, berariaz

la prestación complementaria de vivienda, prestación cuya finalidad es facilitar a las personas más necesitadas –es decir, a las titulares de la renta de garantía de ingresos– el acceso a la vivienda. Esta prestación pasa así a dar cobertura a buena parte de las necesidades cubiertas hasta la fecha por las ayudas de emergencia social, con la sustancial diferencia de que se constituye en un derecho; su introducción ha tenido, además, la virtualidad de crear el contexto adecuado para devolver a las ayudas de emergencia social su carácter no periódico.

Así mismo, a pesar de la profunda crisis vivida en los últimos años en toda Europa, no se renuncia, de ninguna manera, a implantar un modelo que, considerando el empleo como la mejor vía de inclusión, consiga hacer atractiva la incorporación al mercado laboral incluso para acceder a un empleo de bajo nivel salarial, en cumplimiento, por otra parte, de las directrices que en materia de cohesión social y acceso al mercado de trabajo se derivan de la Estrategia Europea de Empleo.

El Capítulo I recoge las disposiciones generales y establece los elementos definitorios de la prestación, el objeto, la definición, la naturaleza, los gastos específicos a cuya cobertura va dirigida, las características de la prestación, las personas a las que se dirige, sus obligaciones y la posibilidad de concurrencia en la percepción de entre quienes conviven en el mismo domicilio sin formar parte de la misma unidad de convivencia. En este aspecto, de forma coherente con la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, se establece en un límite máximo de dos unidades de convivencia las que pueden solicitar prestaciones del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos, incluidas las ayudas de emergencia social, otorgando prioridad a la percepción de las prestaciones de derecho del sistema, como son la RGI o la PCV.

El Capítulo II define el régimen económico de esta ayuda económica subvencional, con una especial consideración hacia la determinación de los recursos y el patrimonio computables, las cuantías máximas de las ayudas, que se determinarán anualmente mediante orden, así como los límites para la concesión. En cuanto a la cuantía efectiva de la ayuda, el texto del Decreto recoge el deber de cada Ayuntamiento competente de aminorar, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias existentes, la cuantía máxima concesible para cada concepto según la orden anual, en el porcentaje negativo que considere suficiente el Ayuntamiento para dar cobertura por igual a la demanda de todas las personas solicitantes.

En todo caso, atendiendo a lo que manda la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, se establecen los límites que condicionan la concesión de las ayudas de emergencia social y el cómputo de sus cuantías. En

xedatzen denez, laguntzak etxebizitza edo ohiko bizitokia erosteko eskatu diren kredituen interesetatik eta amortizaziotik eratorritako gastuak ordaintzeko direnean, kontzeptu horretarako gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko gehieneko denboraldia ez da hamabi hilabetetik gorakoa izango bizikidetza-unitatea dagoen denboraldi osoan edo etxebizitza beraren edo ohiko alojamenduaren gainean eskatutako kreditua ordaintzeko. Muga horiek ez zaizkie aplikatuko zahartzeagatiko pentsiodunei.

III. kapituluan prestazioa onartzeari buruzko oro biltzen da, baita eskabidea aurkezteko modua eta tokia –eskatzailea bizi deneko udalerria–, behar den dokumentazioa, prozeduraren argibideak, eskatzaileen eta horien bizikidetza-unitateen edo laguntzaren onuradun izan daitezkeen baliabideen egiaztapena eta laguntzaren ebazpena, laguntza ematea eta ordaintzea, gastuen justifikazioa eta aldizkako berrikuspenak ere. Dekretuak ezartzen du premia-egoera –gutxienez– sei hilean behin berrikusi behar dela.

IV. kapituluan jaso behar ez ziren prestazioak itzultzeko prozedura aipatzen da; V. kapituluan, aldiz, prozedurari buruzko arau komunak arautzen dira, eta honako hau ezartzen da: gizarte-larrialdietarako laguntzen eskatzaileei edo onuradunei, horien bizikidetza-unitateko gainerako kideei eta prestazioaz balia litezkeen gainerako pertsonei dagokienez Euskal Administrazio Publiko eskudunek eska litzaketen datu eta txosten guztiak Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean ezarritako prestazioak lortzeko baldintzak eta betebeharrak betetzen ote diren egiaztatzeko nahitaezkoak direnetara mugatuko dira. Horretaz gain, adierazten da Euskal Administrazio Publikoek isilpean gordeko dituztela espedienteak izapidetzeko eskuratutako datuak.

VI. kapituluan finantziazioa eta laguntza hauetan eskumena duten administrazioen arteko diru-transferentziak aipatzen dira. Atal hau bereziki garrantzitsua da tokiko erakundeek izapidetzen eta Jaurlaritzak finantzatzen dituen laguntzei dagokienez. Ildo horretatik, esan behar da, Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren prestazioak eta zerbitzuak bateratzeko, Administrazio Publiko guztiek ahalegin handia egin behar dutela udalerriek, beren nahitaezko autonomia errespetatuz, prestazio horren kudeaketari dagokionez erantzun koherentea eta elkartua eman diezaieten herritarrei, eta horretarako baliagarria izango da dekretu honetan eta Eusko Jaurlaritzak argitaratzen dituen urteko aginduetan ezarritakoa.

particular, se determina expresamente que cuando las ayudas se destinen a la cobertura de gastos derivados de intereses y de amortización de créditos contraídos para la adquisición de la vivienda o alojamiento habitual, el período de tiempo máximo para la percepción de ayudas de emergencia social para este concepto no podrá exceder de doce meses, como suma total durante todo el período de existencia de la unidad de convivencia o para el abono de un crédito sobre la misma vivienda o alojamiento habitual. Estos límites no operan para las personas pensionistas por vejez.

El Capítulo III recoge lo relativo al reconocimiento de la prestación, forma y lugar de presentación de la solicitud –el municipio de residencia de la persona solicitante–, la documentación necesaria, la instrucción del procedimiento, la comprobación de los recursos de las personas solicitantes y sus unidades de convivencia o quienes puedan beneficiarse de la concesión de la ayuda, así como la resolución, concesión, pago, justificación de gastos y revisiones periódicas. El Decreto establece la obligatoriedad de una revisión de la situación de necesidad con una periodicidad de al menos, una vez cada seis meses.

El Capítulo IV hace referencia al procedimiento de reintegro de las prestaciones indebidamente percibidas y el Capítulo V regula las normas comunes de procedimiento, estableciendo que todos los datos e informes que, con relación a personas solicitantes o beneficiarias de las ayudas de emergencia social, a las demás personas miembros de su unidad de convivencia y a las demás personas que pudieran beneficiarse de la prestación, pudieran ser requeridos o solicitados por las Administraciones Públicas Vascas competentes se limitarán a los que resulten imprescindibles para la comprobación del cumplimiento de los requisitos de acceso a las prestaciones y de las obligaciones establecidos en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social y en el presente Decreto. Además, se señala que las Administraciones Públicas Vascas garantizarán la confidencialidad de los datos obtenidos en la tramitación de los expedientes.

El Capítulo VI se refiere a la financiación y a las transferencias de dinero entre las administraciones competentes en estas ayudas. Se trata de un apartado especialmente relevante en unas ayudas que son tramitadas por las entidades locales y financiadas por el Gobierno. En este sentido cabe señalar el importante esfuerzo que todas las Administraciones Públicas, en aras a la armonización de las prestaciones y servicios que se prestan en la Comunidad Autónoma de Euskadi, deben realizar para que los distintos municipios, respetando su necesaria autonomía, ofrezcan a la ciudadanía una respuesta coherente y armonizada en la gestión de esta prestación, debiendo servir para ello lo establecido en el presente Decreto y en las órdenes anuales que publica el Gobierno Vasco.

Dekretu honen Xedapen Osagarri Bakarrean honako hau ezartzen du Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen VII. Tituluan biltzen den arau-hauste eta zehapenen araubideari dagokionez: Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren VII. kapituluan aurreikusitako zehapen-prozedura aplikatuko da, gizarte-larrialdietarako laguntzen kasuan izan ezik; kasu horretan prozedura abiarazteko, izapidetzeko eta ebazteko eskumena duen administrazioa dagokion udala izango baita.

Xedapen Iragankorrean ezartzen da Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioaren Euskal Sistema martxan egon arte, udalen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko informazioa euskarri informatiko estandarizatu bidez emango dela, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailak ezartzen duen bezala, betiere datuen edukiei buruz artikuluetan aipatzen diren baldintzak betez. Udalei diruz laguntzen dien baina Jaurlaritzak zuzenean izapidetzen ez duen prestazio batean Jaurlaritzak datuak eskuragarri izatea funtsezko pieza bat da Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak laguntza horren kontrol egokia eta erantzukidetasunean oinarritutako iraunkortasuna izan dezan, bestela, Sistemaren aginte-ekintza itsu-itsuan egiten da eta zalantza askorekin, eta horrek zailtasunak ekarriko dizkie parte hartzen duten Administrazio Publiko guztiei, baita laguntza horiek jasotzen dituzten herritarrei ere.

Dekretu honen asmoa zera da, gizarte-larrialdietarako laguntza iraunkorrak, esku hartzen duten Administrazio Publiko guztiek modu arduratsuan kudeatzen dituztenak eta aldizkakoak ez diren premia-egoeretarako diru-laguntzen zeregina behar bezala betetzen dutenak garatzea, eta ahal den neurrian, ahalegina eginez sakontasun handieneko premia-egoerak Sistemaren zuzenbideko prestazioen bitartez, hau da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarriaren bitartez estal daitezen. Udaletako esku-hartze sozialeko profesionalen eskutan dagoen lanerako tresna eraginkorrak izango diren laguntzak, premia-txosten zorrotzetara lotuak eta ematerakoan automastimoetatik aldenduta daudenak eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren gainerako prestazioen zenbateko txikiagoa dutenen osagarri huts bihurtu direnak.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak esateko zer zuten entzunda, gaiari buruzko nahitaezko txostenak emanda, eta Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, 2011ko urtarrilaren 18an egindako Bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertuta eta onartuta, honako hau

En su Disposición Adicional Única, el Decreto establece, en relación al régimen de infracciones y sanciones contenido en el Título VII de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, que será de aplicación el procedimiento sancionador previsto en el Capítulo VII del Decreto 147/2010, de 25 de mayo, de Renta de Garantía de Ingresos, con la salvedad de que en el caso de las ayudas de emergencia social, la administración competente para el inicio, tramitación y resolución del procedimiento es el ayuntamiento correspondiente.

En la Disposición Transitoria se establece que en tanto no se encuentre operativo el Sistema Vasco de Información sobre Servicios Sociales, la información entre los ayuntamientos y el Gobierno Vasco será transmitida mediante soporte informático estandarizado, en la forma en que determine el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de garantía de ingresos y de inclusión social, cumpliendo los requisitos mencionados en el articulado en lo referente a los contenidos de los datos. La disponibilidad de datos por parte del Gobierno en una prestación que subvenciona a los ayuntamientos, pero que no tramita directamente, es una pieza fundamental para conseguir un buen control y sostenibilidad corresponsable de esta ayuda del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos, de lo contrario, la acción de gobierno del Sistema se produce a ciegas y con un alto grado de incertidumbre que redunda en dificultades para todas las Administraciones Públicas intervinientes y la propia ciudadanía perceptora de las ayudas.

Este Decreto pretende desarrollar unas ayudas de emergencia social sostenibles, gestionadas corresponsablemente por todas las Administraciones Públicas intervinientes y que cumplan adecuadamente su papel de ayudas subvencionales para situaciones de necesidades no periódicas intentando en la medida de lo posible que las situaciones de necesidad de mayor profundidad sean cubiertas a través de las prestaciones de derecho del Sistema, como son la Renta de Garantía de Ingresos y la Prestación Complementaria de Vivienda. Unas ayudas que sean una herramienta eficaz de trabajo en manos de las personas profesionales de la intervención social en los ayuntamientos, sujetas a informes de necesidad rigurosos y alejadas de automatismos en su concesión, convertidas en meros complementos de menor cuantía del resto de prestaciones del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, oídas la Comisión Interinstitucional para la Inclusión Social y el Consejo Vasco para la Inclusión Social, emitidos los informes preceptivos por razón de la materia, y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 18 de enero de 2011,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea.

1.– Dekretu honen xedea Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritako gizarte-larrialdietarako laguntzak eta prestazio ekonomikoak arautzea da, laguntza horietan sartu behar diren kontzeptuak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan emateko baldintzak zehaztuz.

2.– Laguntza horiek emateko baldintzek eta aplikatzeko prozedurek aipatutako Legean, dekretu honetan eta hori garatzeko ematen diren xedapenetan xedatutakoari jarraituko diote.

Aurrekoa gorabehera, bizikidetza-unitatearen eta etxebizitzaren edo bizitokiaren kontzeptuei dagokienez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. eta 6. artikuluetan, hurrenez hurren, ezartzen dena hartuko da kontuan.

***2. artikulua.***– Definizioa eta ezaugarriak.

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak aldian-aldian emango ez diren prestazio ekonomikoak dira, eta haien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoei –ohikoak zein apartekoak– aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak.

2.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak diru-laguntzatzat hartuko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako kreditua ezarrita egotearen baitan egongo da horiek ematea ala ez. Aurrekoa bazter utzi gabe, Eusko Jaurlaritzak eta Udalek, administrazio publiko eskudunak diren aldetik, laguntza horiekin lotutako gastuei aurre egiteko behar adinako zenbatekoak esleituko dituzte urtero.

***3. artikulua.***– Berariazko gastuak.

Aurreko artikuluaren 1. paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, honako gastu hauek hartuko dira gastu espezifikotzat, ohiko edo aparteko gastutzat, gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko gastutzat, besteak beste:

a) Ohiko etxebizitza edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuak; horren barruan sartuko dira:

1) Alokairu-gastuak.

2) Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak.

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Objeto.

1.– Es objeto del presente Decreto la regulación de las ayudas de emergencia social, prestaciones económicas establecidas por la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, determinando los conceptos que deben integrarse en dichas ayudas y los requisitos para su concesión en todo el territorio de la Comunidad Autónoma del Euskadi.

2.– Los requisitos para la concesión de estas ayudas y los procedimientos para su aplicación se regirán por lo dispuesto en la mencionada Ley, en el presente Decreto y en las disposiciones que se dicten para su desarrollo.

No obstante lo anterior, en lo relativo a los conceptos de unidad de convivencia y de vivienda o alojamiento, se estará a lo dispuesto, respectivamente, en los artículos 5 y 6 del Decreto 147/2010, de 25 de mayo, de Renta de Garantía de Ingresos.

***Artículo 2.***– Definición y naturaleza.

1.– Las ayudas de emergencia social son prestaciones no periódicas, de naturaleza económica, destinadas a aquellas personas, integradas en una unidad de convivencia cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social.

2.– Las ayudas de emergencia social tendrán naturaleza subvencional, quedando su concesión sujeta a la existencia de crédito consignado para esa finalidad en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Sin perjuicio de lo anterior, el Gobierno Vasco y los Ayuntamientos, en su calidad de administraciones públicas competentes, consignarán con carácter anual las cantidades suficientes para hacer frente a los gastos relacionados con las mismas.

***Artículo 3.***– Gastos específicos.

A los efectos de lo previsto en el párrafo 1 del artículo anterior, tendrán la consideración de gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social, en todo caso, los siguientes gastos:

a) Gastos necesarios para el disfrute y mantenimiento de la vivienda o alojamiento habitual, incluyendo:

1) Gastos de alquiler.

2) Gastos derivados de intereses y de amortización de créditos contraídos con anterioridad a la situación de emergencia social como consecuencia de la adquisición de una vivienda o alojamiento.

3) Energia, ura, estolderia eta zaborretarako gastuak, baita ondasun higiezinen gaineko zergari dagozkionak ere, ondasunak landa- zein hiri-eremukoak izan.

4) Etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren bizigarritasunerako eta oinarrizko ekipamendurako beharrezko gastuak. Honako hauek hartzen dira mota horretako gastutzat:

– Altzari-gastuak.

– «Linea zuria» izeneko etxetresna elektrikoen gastuak.

– Etxebizitza egokitzeko edo konpontzeko gastuak.

– Etxebizitzako oinarrizko instalazioen gastuak.

b) Bizikidetza-unitateko kide batek edo gehiagok dituzten oinarrizko premiei buruzko gastuak, esate baterako: jantziak, hezkuntza eta prestakuntzakoak eta osasun-arretakoak, betiere sistema publikoek gastu horiek estaltzen ez dituztenean.

c) Aurretiko zorpetzeko gastuak, a) eta b) idatz-zatietan aipatutako gastu-kontzepturen batean sortuak, edo bizitzaren oinarrizko beste premia batzuei aurre egiteko gastuetarako.

***4. artikulua.***– Ezaugarriak.

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak helburu jakin baterako dira; beraz, helburu horretarako baino ezin dira erabili.

2.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak subsidiarioak dira eta, hala badagokio, indarreko legerian aurreikusten diren eta onuradunak edo haren bizikidetza-unitateko edozein kidek nahiz, hala badagokio, etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren beste pertsona batzuek jaso ditzaketen eduki ekonomikoko edozein motatako gizarte-baliabide eta -prestazioen osagarriak dira.

3.– Alokairu-gastuak ordaintzeko aurreikusitako gizarte-larrialdietarako laguntzak ez dira bateragarriak diru-sarrerak bermatzeko errentaren edozein modalitaterekin.

Halaber, ez dira bateragarriak izango Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriarekin Dekretu honetako 3. artikuluaren a) idatz-zatian aipatzen diren gastuak, hots, etxebizitzaren gastuak ordaintzera bideratutako gizarte-larrialdietarako laguntzak.

4.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak ezin dira eskuz aldatu, eta, beraz, ezin izango dira:

a) Obligazioen berme gisa eskaini.

b) Lagatu, ez osorik, ezta partzialki ere.

c) Konpentsatu edo deskontatu, jaso behar ez ziren prestazioak itzultzeko izan ezik, betiere Dekretu honetako IV. kapituluan aurreikusitako baldintzen arabera.

3) Gastos de energía, agua, alcantarillado, basuras, así como los correspondientes al impuesto sobre bienes inmuebles de naturaleza urbana y rústica.

4) Gastos necesarios para la habitabilidad y el equipamiento básico de la vivienda o alojamiento habitual, considerándose como tales los siguientes:

– Gastos de mobiliario.

– Gastos de electrodomésticos de la denominada «línea blanca».

– Gastos de adaptación o reparación de la vivienda.

– Gastos de instalaciones básicas en la vivienda.

b) Gastos relativos a las necesidades primarias de una o más personas miembros de la unidad de convivencia, tales como vestido, educación y formación y atención sanitaria, no cubiertas por los diferentes sistemas públicos.

c) Gastos de endeudamiento previo originados por alguno de los conceptos de gasto señalados en los apartados a) y b) o por la realización de gastos necesarios para atender otras necesidades básicas de la vida.

***Artículo 4.***– Características.

1.– Las ayudas de emergencia social tienen carácter finalista, debiendo destinarse únicamente al objeto para el que hayan sido concedidas.

2.– Las ayudas de emergencia social tienen carácter subsidiario y, en su caso, complementario de todo tipo de recursos y prestaciones sociales de contenido económico previstos en la legislación vigente que pudieran corresponder a la persona beneficiaria o a cualquiera de las personas miembros de su unidad de convivencia así como, en su caso, a otras personas residentes en la misma vivienda o alojamiento.

3.– Las ayudas de emergencia social previstas para la cobertura de los gastos de alquiler son incompatibles con la renta de garantía de ingresos en cualquiera de sus modalidades.

Igualmente, serán incompatibles con la prestación complementaria de vivienda las ayudas de emergencia social dirigidas a cubrir los gastos de la vivienda citados en el apartado a) del artículo 3 del presente Decreto.

4.– Las ayudas de emergencia social son intransferibles y, por tanto, no podrán:

a) Ofrecerse en garantía de obligaciones.

b) Ser objeto de cesión total o parcial.

c) Ser objeto de compensación o descuento, salvo para el reintegro de las prestaciones indebidamente percibidas, en los términos previstos en el Capítulo IV del presente Decreto.

d) Atxiki edo bahitu, aplikatzekoak diren Estatuko lege orokorretan aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

***5. artikulua.***– Onuradunak.

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko, Dekretu honetan aurreikusitako baldintzetan, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Laguntza eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizitzea, eskabidea aurkeztu baino sei hilabete lehenagotik gutxienez.

Gutxieneko epe hori bete ezean, eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta eta bertan benetan bizi izandakoak izango dira bost urtez jarraian aurreko hamar urteen barruan.

Idatz-zati honetan aurreikusitako baldintzak, hots, erroldarena eta bertan benetan bizi izatearena, ez zaizkie exijituko maiatzaren 27ko 8/1994 Euskal Autonomia Erkidegoz kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko harremanei buruzko Legearen 11.1 artikuluak aipatzen dituen euskal gizataldeei, betiere artikulu horretan aurreikusitako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

b) Gutxienez eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenago sortutako bizikidetza-unitatea izatea, eta epe hori bete behar izatea honako hauentzat geratuko da salbuetsita:

1) Adingabeak ekonomikoki beren kargura dituztenentzat.

2) Ezkontza bidez edo horren antzeko harreman iraunkor baten bidez bizikidetza-unitate berri bat osatzen dutenentzat.

3) Bizikidetza-unitate berri bat osatzen dutenentzat banantze, dibortzio edo ezkontza-deuseztasun bidez, izatezko loturaren desegite bidez edo bikoteko kideetako bat hil delako, betiere unitate berria aurreko bizikidetza-unitateko kideek soilik osatzen badute.

4) Bizikidetza-unitate berri bat osatzen dutenentzat, beren aitaren eta amaren, tutoreen edo legezko ordezkarien heriotzagatik edo behin betiko sartu dituztelako izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko abegi-zerbitzu batean edo espetxe batean.

5) Bizikidetza-unitate berri bat osatzen dutenentzat ohiko etxebizitza utzi egin behar izan dutelako etxeko edo familia barruko indarkeriaren biktimak izan direlako, betiere unitate berria aurreko bizikidetza-unitateko kideek soilik osatzen badute.

d) Ser objeto de retención o embargo, salvo en los supuestos y con los límites previstos en la legislación general del Estado que resulte de aplicación.

***Artículo 5.***– Personas beneficiarias.

1.– Podrán ser beneficiarias de las ayudas de emergencia social, en las condiciones previstas en el presente Decreto, aquellas personas que reúnan los siguientes requisitos:

a) Estar empadronadas y tener la residencia efectiva en el municipio en el que se solicita la ayuda y haber estado empadronadas y tener la residencia efectiva en cualquier municipio de la Comunidad Autónoma de Euskadi al menos con seis meses de antelación a la fecha de presentación de la solicitud.

Si no se cumple ese período mínimo previo, deberán haber estado empadronadas y haber tenido la residencia efectiva en cualquier municipio de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante cinco años continuados de los diez inmediatamente anteriores.

Los requisitos de empadronamiento y residencia efectiva previstos en el presente apartado no serán exigibles a las personas miembros de las colectividades vascas a que se refiere el artículo 11.1 de la Ley 8/1994, de 27 de mayo, de Relaciones con las colectividades y centros vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siempre y cuando cumplan los demás requisitos previstos en dicho artículo.

b) Constituir una unidad de convivencia como mínimo con un año de antelación a la fecha de presentación de la solicitud, quedando exceptuado el cumplimiento de dicho plazo en los siguientes supuestos:

1) Quienes tuviesen económicamente a su cargo a personas menores de edad.

2) Quienes constituyeran una nueva unidad de convivencia por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga a la conyugal.

3) Quienes constituyeran una nueva unidad de convivencia por separación, divorcio o nulidad matrimonial, por disolución de la unión de hecho o por fallecimiento de una de las personas miembros de la pareja, siempre que la nueva unidad esté exclusivamente constituida por personas integrantes de la unidad de convivencia anterior.

4) Quienes constituyeran una nueva unidad de convivencia por fallecimiento o por ingreso definitivo en un servicio residencial de carácter social, sanitario o sociosanitario o en un centro penitenciario del padre y madre, o personas tutoras o representantes legales.

5) Quienes constituyeran una nueva unidad de convivencia por haberse visto obligadas a abandonar su domicilio habitual por haber sido víctimas de violencia doméstica o intrafamiliar, siempre que la nueva unidad esté exclusivamente constituida por personas integrantes de la unidad de convivencia anterior.

6) 18 urte baino gutxiago izan eta artikulu honetako d) idatz-zatian azaltzen diren egoeretakoren batean daudenentzat.

7) Kotizaziopeko edo kotizaziorik gabeko zahartzaroko, baliaezintasuneko edo alarguntzako pentsioen onuradunek osatutako bizikidetza-unitate berria osatzen dutenek bikotekidearekin edo senar-emazteen pareko harreman jarraitua dutenekin batera, eta ekonomikoki haien mendekoak direnekin batera. Aurrekoaren ondorioetarako, lehenengoekiko ekonomikoki mendekotzat hartuko dira inolako diru-baliabiderik ez duen pertsona bakar bati dagokion Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren zenbatekoa baino diru-sarrera konputagarri handiagoak ez dituzten pertsonak, salbuetsita geratuz lan egiteagatik edo osagarriak izan daitezkeen pentsioetatik datozen diru-sarrerak lortzen dituzten pertsonak.

8) Aurreko idatz-zatian adierazitako unitatearen gainerako kideek osatutako bizikidetza-unitate bat osatzen dutenentzat, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen aplikazioaren ondorioz betiere orain unitate independente bat osatzen badute.

c) Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren jasotzaileak ez izatea, salbu eta gizarte-larrialdietarako laguntzak 3. artikuluko b) eta c) idatz-zatietan azaltzen diren gastuak ordaintzeko eskatzen badira.

d) 18 urte izatea. Gutxieneko adin-muga horretatik salbuetsita daude gazteago izanik ondorengo egoeraren batean daudenak, baldin eta gainerako baldintzak betetzen badituzte:

1) Ekonomikoki beren kargura % 45etik gorako minusbaliotasun-kalifikazioa duten edota autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 legean aurreikusitakoaren arabera II. graduko 1. mailako mendetasuna edo handiagoa duten adingabeak edo helduak dituztenean.

2) Erabateko zurztasuna egiaztatzen dutenak.

3) Ezkonduta edo horren pareko bestelako harreman iraunkor baten bidez beste bati lotuta daudenak, egoera horretan gutxienez sei hilabete badaramate.

4) Etxeko edo familia barruko indarkeriaren biktimak izan direnak.

e) Dekretu honetako 3. artikuluan jasotako gastu espezifikoei aurre egiteko behar beste baliabide ez izatea, baldin eta horrek haien bizikidetza-unitateko kideei eragiten badie; hala, ez dagoela behar beste baliabide ulertuko da ondoren azaltzen diren baldintzak betetzen direnean:

6) Quienes, siendo menores de 18 años, se encuentren en alguna de las situaciones contempladas en el apartado d) del presente artículo.

7) Quienes constituyan una nueva unidad de convivencia formada por personas beneficiarias de pensiones contributivas o no contributivas de vejez, invalidez o viudedad, junto con su cónyuge o persona unida a ellas por relación permanente análoga a la conyugal y las personas que dependan económicamente de ellas. A efectos de lo anterior, se consideran económicamente dependientes de las primeras a aquellas personas que no tengan ingresos computables en importe superior a la cuantía de la Renta Básica para la Inclusión y la Protección Social correspondiente a una persona sola en el supuesto de ausencia total de recursos, quedando exceptuadas de tal consideración las personas que obtienen ingresos por trabajo o procedentes de pensiones susceptibles de ser complementadas.

8) Quienes constituyan una unidad de convivencia formada por las restantes personas miembros de la unidad señalada en el apartado anterior, que, como consecuencia de la aplicación de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, forman ahora también una unidad independiente.

c) No ser destinatarias de la prestación complementaria de vivienda, salvo si las ayudas de emergencia social se solicitan para la cobertura de los gastos contemplados en los apartados b) y c) del artículo 3.

d) Tener cumplidos 18 años. Este límite mínimo de edad quedará exceptuado para quienes, no alcanzando dicha edad y reuniendo el resto de los requisitos, se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

1) Tengan económicamente a su cargo a personas menores de edad o adultas que cuenten con una calificación de discapacidad igual o superior al 45%, o con un reconocimiento de dependencia igual o superior al Nivel 1 del Grado II, según lo dispuesto en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

2) Acrediten orfandad absoluta.

3) Estuvieran unidas a otra persona por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga a la conyugal con al menos seis meses de antelación.

4) Hayan sido víctimas de violencia doméstica o intrafamiliar.

e) No disponer de recursos suficientes con los que afrontar los gastos específicos contemplados en el artículo 3 de este Decreto que afecten a las personas miembros de su unidad de convivencia, considerándose que no se dispone de recursos suficientes cuando se cumplan las condiciones siguientes:

1) Azken urtean edo prestazioek helburu duten gastuekin lotzen den edo lotuko den denboraldian, errendimenduak (Dekretu honetako 13. artikuluan ezartzen denaren arabera erabakiak) etxebizitza-unitateko kide kopuruaren arabera legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren gehieneko zenbatekoa baino % 150 handiagoak izatea. Aurrekoa bazter utzi gabe, kontuan hartuko dira, halaber, eskatzailea bizi den etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren gainerako kideek jaso ditzaketen prestazioen errendimenduak.

2) Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bizikidetza-unitatetzat har litezkeen pertsonak aipatutako legearen 9.1.b artikuluan aipatutako loturetakoren bat duten pertsonekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi badira, eta pertsona horiek guztiek, dagokion denboraldirako, beren errendimenduak badituzte eta errendimendu horien balioa dagokion gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren gehieneko zenbatekoa baino hiru aldiz txikiagoa bada, baldin eta pertsona horiek ez badute inolako errekurtsorik, betiere adierazitako artikuluan aipatzen diren loturengatik elkarrekin lotuta dauden pertsona guztiak kontuan hartuta.

f) Batere baliabiderik izan ezean eta bizikide (aipatutako loturen bidezko harremana dutenak) kopuruaren arabera legokiekeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren urteko zenbatekoaren lau halako baino txikiagoa izatea beren ondarea. Ondarearen balioa diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren III. kapituluaren 4. atalean ezarritakoarekin bat etorriz zehaztuko da.

g) Gizarte-larrialdietarako laguntzak alokairu-gastuei aurre egiteko erabiltzen direnean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebide zerbitzuan etxebizitza-eskatzaile bezala izena emanda egotea edo izena ematea eskatu izana.

Baldintza hori ez da eskatzekoa izango honako kasu hauetan:

– Gizarte-larrialdietarako laguntzak baliatzeko eskakizunak beteta dituztela, Etxebiden sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak, bizileku-baldintza betetzen ez dutelako nahiz baliatzeko gutxieneko ekonomikoak betetzen ez dituztelako.

– 65 urtetik gorako pertsonak, zahartzaroko kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsioen onuradunak, etxebizitza berean 10 urte baino gehiagoz bizi direla egiaztatzen dutenak, edo gutxieneko epe hori betetzen ez badute ere, ohiko etxebizitzan geratu be-

